


## ORONA 2019 | Fact Sheet

### Mugikortasun-soluzioen zerbitzu integrala

Egoitza Hernanin (Gipuzkoa) duen enpresa-talde bat da Orona. Taldeak 50 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta Europako eta Amerikako 11 herrialdetako hogeita hamar enpresak osatzen dute.



Taldea hiriko mugikortasun-soluzioetan espezializaturik dago, asmatze-prozesu guztian zehar egoten da, eta zerbitzu integrala ematen du, barne harturik diseinua, fabrikazioa, instalazioa, mantentzea eta mugikortasuneko soluzioak eraberritzea (hala nola igogailuak, eskailera mekanikoak, arrapalak eta korridoreak).

### Berezko eredia duen kooperatiba

Orona kooperatiba-esperientzia bat da; etengabeko eraldaketan dago, globalki integraturik, gizarte-, energia- eta ingurumen-erronkekin konprometiturik; eta berrikuntzak egiten ditu eko-hirietan eraikuntza jasagarriak egikaritzeko, aberastasuna sortzeko eta inguruan balioa sortzeko.

Oronak berezko enpresa-profila du:

- Sektoreko multinazionaletatik bereizten da kudeaketa-ereduagatik, balioetan eta lankidetzaren printzipioan oinarritua baita.
- Tokiko eta eskualdeko enpresetatik bereizten da eredu integralari esker, aukera ematen baitio herrialde askotan egoteko bere taldearekin, igogailu bateko osagai guztiak hornitzeko gaitasuna izateko eta autonomia handia izateko. Orona gai da igogailu baten fabrikazio eta inplementazio prozesua osorik kudeatzeko, diseinutik hasita ekipoak entregatu arte.

### **Nabarmendutako bezeroak**

Oronak mota guztietako zerbitzuak eskaintzen ditu, eraikuntza berrietarako nahiz egungo eraikuntzetarako, eta aholkularitzarekin osatzen du eskaintza, kasu guztietan konponbiderik onena topatzeko igogailuen eta mugikortasun arloetan, trafikoaren kudeaketan, komunikazioan, erosotasunean eta diseinuan.

- Etxebizitzak
- Komertziala
- Soziosanitarioa
- Ondare historikoa
- Karga handiak

Igogailuak eta mugikortasunerako beste elementuak aurki daitezke eraikinetan eta zerbitzuetan, hala nola:

Estatuan:

- Bartzelonako metroa
- Inditexen egoitza handitzea – Coruña
- Madrilgo Metropolitano futbol-estadioa
- Alacanteko aireportua zabaltzeko lanak
- Gornizko ospitalea
- Boluetako dorreak - Bilbo
- Bonpreu merkataritza-zentroak – Bartzelona
- Anoetako estadioaren berritze-lanak – Gipuzkoa

Nazioartean:

- Bruselako metroa eta AZ Groeninge ospitalea – Belgika
- Rouen-go Metropole eta Parisko Operako Zara denda – Frantzia
- Titanic Hotela – Belfast, Ipar Irlanda
- Adare Manor Hotela – Limerick, Irlanda
- Bigarren Mundu Gerraren museoa – Gdansk, Polonia
- Cruzeiros Terminala – Leixões, Portugal
- Premier Inn Hotela eta Crown Plaza Premier Inn Hotela, Londresko Heathrow aireportuan – Erresuma Batua
- Amsterdamgo Tijdelijke Rechtbank epaitegiak – Herbehereak
- Universitet i Oslo. IFI2 – Oslo, Norvegia
- Rabobank - Roelofarendsveen – Herbehereak
- Ikea – Hengelo – Herbehereak
- EICC Edinburgh International Conference Centre – Edinburgh, Erresuma Batua

### **ORONA datutan (2018)**

- 741 milioi euro salmentatan (+ % 5,10)
- 422 milioi euro salmentatan nazioarteko merkatuan (fakturazio osoaren % 57) (+ % 3,13)
- Ustiapeneko emaitza gordina (Ebitda): 126 milioi euro (+ % 1,37)
- Fakturazio osoaren % 1,4ko inbertsioa
- 15.826 gailu bidalita (+ % 13,1)
- 5.177 langile (+ % 3,91)

### **Orona UE proiektua**

Orona UE proiektuaren bidez, konpainiaren helburua da igogailuen sektorean European operadore bakarra izatea nazioarteko konpainiekin lehiatzeko gai dena, eta arreta berezia jartzea independentzia teknologikoan, ingurune digitalerako eraldaketan eta lanpostuak sortzean.

2006. urteaz geroztik, kooperatiba hazi egin da, bai organikoki, bai inorganikoki, eta horrek aukera eman dio Europa mailan presentzia handitzeko eta sendotzeko. Gaur egun, presentzia hau du:

- Finkatutako eredia: Espainia eta Portugal.
- Sendotasun osotik gertu: Frantzia, Erresuma Batua eta Irlanda.
- Presentzia sendotzeko prozesuan: Polonia, Alemania, Suitza, Norvegia, Herbehereak eta Belgika.

Orona UE proiektua, zeinak konpainiaren eredu osoan eta ekipamendu eta zerbitzu osoak hornitzeko duen gaitasunean jartzen baitu arreta, hiru fasetan gauzatuko da:

Lehena 2019-2022 urteen artean egingo da, eta helburu du 900 milioi euro fakturatzeko eta 6.000 langile izatera iristea. Bigarren fasea 2022tik 2026ra bitartean garatuko da. Hirugarren fase bat izango da proiektua finkatzeko, eta 2030ean amaituko da.

Iragartzen da etorkizun horretan 14 herrialdetan baino gehiagotan egongo dela konpainia, 8.000 langile izango dituela, 1.200 milioi euro inguruko negozio-zifra, eta egoitza korporatiboan enplegua sortuko duela 350 bat lagunentzako.

Orona osorik bilakatzeko proiektu bat da, eta European kooperatiba-esperientziaren balioak hedatzeko aukera emango du.

## Nazioarteko presentzia

- 250.000 igogailu munduan Orona teknologiarekin.
- Europako eta Amerikako **11 herrialdetako 30 enpresak** baino gehiagok osatzen dute.
- 100 herrialde baino gehiagok instalatzen dituzte Oronaren produktuak.
- 5.000 profesional inguru ari dira taldean; horietatik 2.000, Espainiatik kanpo.
- 14006 ISOren arabera Ekodiseinu-ziurtagiria duen mundu osoko lehen igogailu-enpresa da.
- Europako lehena da igogailu osoak ekoizteko ahalmenari dagokionez.